

DINBI BANDA BATUKADA ELKARTEA

2012. urtean, gazte talde batek, Ttakun elkarteak antolatutako ikastaroa jaso ondoren, batukada talde bat osatzeko erabakia hartu zuen. Musikaz gutxi jakin arren, ilusio handiz martxan jarri ziren eta irabazi-asmorik gabeko aisialdi elkarte bat sortu zuten.



Haciendo sonar cinco instrumentos diferentes ejecutamos ritmos como: sanba, hunbia, reaggeton y funkya. Para ello, además de ensayar asistimos a cursos de técnica, body percussion, musikaterapia, danza africana, dinámica de expresión etc...

Dinbi Banda batukada elkarteak, aisialdia euskaraz pasatzea du helburu nagusia. Aurtengo ikasturtea taldekide berri ugariekin hasi dugu, ate irekiko saioak antolatu ondoren. Egun 20 lagun biltzen gara danborren inguruan.

Dinbi Bandan aniztasuna nabaria da, jatorri desberdineko jendeak osatzen bait dugu taldea: Galizia, El Salvador, Malaga... Lasartearez gain, Usurbildik, Donostiatik, Zumaiatik eta Zarauztik datozen kideekin ostiralero elkartzen gara Sasoeta ikastetxeko gimnasioan entsaiatzeko.

Bost instrumentu desberdin erabiliz, sanba, kunbia, reaggeton eta funkya jotzen ditugu.

Dinbi Banda osatzen dugun kideok barne antolakuntzaz arduratzen gara, hau da, taldekide bakoitzak arlo desberdinetan erantzunkizuna du: zuzendaritza, entseguak, saioen ardura, instrumentuen mantenua, artxibo, sare sozialak...

Urtean behin edo bitan zenbait ikastaro jasotzen ditugu gure formakuntza hobetzeko, besteak beste teknika, body percussion, musikaterapia eta dantza afrikarra.

Aurten, espresio dinamikei ekingo diogu.

Tras las sesiones de puertas abiertas hemos crecido alcanzando la cifra de 20 personas disfrutando en torno a los tambores. Sin importar los orígenes, ni el lugar de residencia, el grupo, se reúne todos los viernes para ensayar

Ohiko jarduna kontratazio bidez izaten bada ere, elkarteak sortu zenetik Lasarte-Oriako hainbat eragileekin emandak izan ditugu elkarlan bat sustatuz: Aterpearen ekintzetan, AEKrekin Korrika ospatzen, Euskaraldia- ren aurkezpenean, Euskararen Maratoian...



MANRESAKO BATEGADA:

laz, Euskal Herriko mugak gaindituz, Katalunia aldera joan ginen Manresan ospatu zen Batukaden topaketara gonbidatuta. Harrera ahaztezina egin ziguten bertako taldeek eta hemen landutako erritmoekin kaleetan zehar ibili ginen beste 10 talderen artean. Bukarako saioa eskaini eta gero ikusleen txaloak jaso genituen gustora. Aurten ere berriro itzultzeko eskatu digute. Gustora joango gara.

2018 URTEKO EMANALDIAK:

- Lezoko jaiak
- Zumaiako Telmo deuna jaiak
- ATERPEAren 25. Urteurrena
- Manresako La Bategada
- Irungo jaiak
- Lasarte-Oriako San Pedro jaiak
- ASPANOGIren 20. Urteurrena Donostiako Kursaal
- Irungo Ficoban, enpresa baten afarian
- Euskaraldiari ongi etorria Lasarte-Orian

2019 URTERAKO ASMOAK

Zalantzarik gabe, ederki hasi dugu ikasturtea eta ilusioz ekingo diogu taldekide berrie-kin.

Erritmo berriak sortuz eta zaharrak berreskuratuz, kaleak alaitzeko intenzioarekin jarraituko dugu!

